

**2012KO IRAILAREN 24AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita lau.

HILABETEA: Iraila.

URTEA: Bi mila eta hamabia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko lauretan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

ETORRI GABEA: Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2012ko uztailaren 20ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK ESLEITZEA. Bideluze zubia eta Arana kalea urbanizatzeko obrak esleitzea.

Ezagutzera eman da, 2012ko irailaren 21eko Kontratazio Mahaiaren ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2012ko uztailaren 20an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, J. M. Arana kaleko eta Bideluze zubiko urbanizazio obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 406.701,80 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 24 aste.

2.- Deialdia, 2012ko uztailaren 24an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitaziora 10 enpresa aurkeztu ziren (ikus 1. dokumentua).

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, hamar enpresei dokumentazioa osatzeko eta zuzentzeko errekerimendua egin zitzaien. Errekeritutako dokumentazioa denek aurkeztu zuten eta horren ondorioz denak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko (ikus 2. dokumentua).

4.- Irailaren 11n dokumentazio teknikoari buruzko kartazala ireki zen ekintza publikoan eta matematikoki baloratzen ez diren esleipen irizpideak ebaluatu ondoren, proposamen ekonomikoei buruzko kartazala ireki zen, 2012ko irailaren 18an.

Lizitazioan parte hartu duten enpresa bakoitzak lortutako puntuak batu ondoren esleipen-irizpide desberdinekiko, emaitza ondorengoa da:

PLEGUEN IREKIERA: J.M.ARANA KALEA ETA BIDELUZE ZUBIA URBANIZATZEKO OBREN PROIEKTUA APERTURA DE PLICAS: OBRAS DE U							
OINARRIZKO LIZITAZIOA - LICITACION BASE				406.701,80			
BEZ - IVA				18%			
BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA				73.206,32			
OROTORA - TOTAL				479.908,12			
BATEZ BESTEKO BEHERAPENA - BAJA MEDIA							
				PUNTUACIONES			
		HURRENKERA - Nº ORDEN	ESKAINZAILEAK - OFERTANTES	OFERTA TECNICA (15 PUNTOS MAX.)	ECONOMICA	PLAZO	TOTAL
ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAZIOAK	85.4 ARTIKULUAREN ARABERA BARRUA GELDITUTAKO ESKAINTZAK - OFERTAZIOAK CALIFICADAS PARA LA MEDIA S/ ART.85.4	1	MORGA CONSTRUCCIONES	9,2	75,00	10,00	94,20
		2	CAMPEZO CONSTRUCCION S.A.U.	11,55	68,17	10,00	89,72
		3	ANTIA CONSTRUCCIONES	9,8	58,68	10,00	78,48
		4	CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A.	5,575	58,16	10,00	73,73
		5	OTEGI - GAZTAÑAGA ERAIKUNTZAK, S.L.	12,55	44,71	10,00	67,26
		6	URBYCOLAN GRAMA	12,65	17,06	10,00	39,71
		7	AZYSA OBRAS Y PROYECTOS	3,85	24,31	10,00	38,16
		8	CONSTRUCCIONES ERGA S.L.	11,1	1,46	10,00	22,56
		9	GORAIKI ERAIKUNTZAK	10,45	0,00	10,00	20,45
		10	CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES MANUEL ETXAIDE, S.L.	5,85	0,00	10,00	15,85

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. J. M. Arana kaleko eta Bideluze zubiko urbanizazio obrak egitea, CONSTRUCCIONES MORGA, S.L.ri esleitzea, **264.519,34 €**ko prezioan gehi 47.613,48 (BEZ). Guztira, 312.132,82 €. Egikaritze epea, hemeretzi astekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- **13.225,97 €**ko behin betiko fidantza eratzea.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Aitor Aldasoro jaunak adierazi du abstenitu egingo dela Arana kalean aparkalekuak kentzeagatik eta aparkalekuei buruz azterketa bat ez egiteagatik.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE, H1)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EAJ)

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin onartu egin da kontratazio mahaiaren proposamena.

3.- OBRAK LIKIDATZEA. MURUMENDI eta ALKARTASUNA ikastetxeetako berrikuntza obrak likidatzea.

MURUMENDI eta ALKARTASUNA ikastetxeetako berrikuntza obren likidazioa onartzea proposatu da. Obrak 182.610,18 €tan esleitu ziren eta likidazioa berriz, 279.120,70 €takoan izan da. Hirigintza batzordeko proposamenaren arabera, horren arrazoia, zera izan da:

- Aurreikusita zeren baino lau leiho gehiago jarri dira.
- Pertsianen kaxak aldatu egin dira.

Aitor Aldasoro jaunak adierazi du kexaren bat jaso duela, leihoetan kristala edo beste materialen bat jarri den zalantzan jartzen duena eta hori egiaztatzeko eskatu du.

Alkateak erantzun dio esanez, kalitate-agiria dutela jarri diren kristalak eta udal teknikoak ere ontzat eman duela. Jarraian galdetu du ea Udalak kontratazio baten ondorioz zerbait egiten duen bakoitzean, ondoren materialen ziurtagiriak eskatu behar dituen.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3

Aurkako botoak: 2

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua aurkako baino handiagoa denez, gehiengo soilarekin onartu da, MURUMENDI eta ALKARTASUNA ikastetxeetako berrikuntza obrak, 279.120,70 € likidatzea.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu, baina Alkateak ondorengo informazioaren berri eman du:

BIZIGUNE ETA ARANA KALEKO KUDEAKETA

Alkate jaunak ezagutzera eman du, urriaren 1ean amaitzen dela Udalak AYTASArekin duen kontratu administratiboa, Arana kaleko birgaitze lanak kudeatzeko eta BIZIGUNE programa aurrera eramateko. Asmoa da, ordea, BIZIGUNE programarekin aurrera jarraitzea eta edozein eremutako birgaitze lanak direnean dirulaguntzei buruzko informazioa ematea. Hortik kanpo, “parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza batzorderako” tekniko baten beharra aurreikusten da.

Horren ondorioz, hiru helburu horiek burutzeko orain arte zuzenean Arana kaleko eta Bizigune programako lanetan jardun duen pertsona fisikoa kontratatuko da, pertsona honek duen formazioa “parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza batzorderako” egokia delako. Kontratu administratiboa izango da, luzaezina eta gehienera ere 18.000 € ordainduko zaio, legearen arabera kopuru horretaraino zuzeneko kontratua egin daitekeelako.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko laurak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.